

INFORMAZIO ORRIA

GIPUZKOA INDUSTRIA 4.0 PROGRAMA

PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN GARAPENA (I+G+b)

HELBURUA: Fabrikazio aurreratuan eta 4.0 industriaren merkatura zuzentzen diren produktu, teknologia edo aplikazio berriak garatzera zuzendutako proiektuak. Zientziaren, teknologiaren edo enpresaren arloan, dagoeneko ezagunak diren jakintzak eta teknikak eskuratzea, konbinatzea, konfiguratzea eta erabiltzea, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak, aldatuak edo hobetuak diseinatzera edo planak eta egiturak prestatzera zuzendutako Garapen Esperimentala duten proiektuak izango dira.

ONURADUNAK:

Onuradun izan daitezke egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten enpresa gipuzkoarrak.

Gutxienez 10 pertsona lanaldi osoz edukitzearen baliokide den langile kopurua izango du enpresak; Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien kasuan izan ezik. Programa honen ondorioetarako, Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak edo Enpresa Berritzaileak izango dira helbide soziala eta fiskala Gipuzkoan izanik EAEko Enpresa eta Berrikuntza Zentro baten babespean dauden ETEak, laguntzak emateko unean 2 urte baino gehiago eta 5 baino gutxiago badituzte.

PROIEKTUEN BALDINTZAK:

Proiektuak gutxienez 30.000 euro izango ditu diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuan. Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien kasuan, gutxienezko zenbateko hori 15.000 euro izango da.

Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak emango dira soilik lagun tza jasoko duen enpresaren jardueran pizgarri efektua sortzen badute:

- ETE baten kasuan, laguntzak pizgarri efektua duela ulertuko da onuradunak proiektuan edo jardueran lanean hasi aurretik aurkeztu badu laguntza eskaera.
- Enpresa handiei dagokienez, laguntza batek pizgarri efektua duela ulertuko da baldin eta aurreko apartatuan ezarritako baldintza betetzeaz gain, laguntzak emaitza hauetakoren bat edo gehiago izango dituela egiaztatzen badu:
 - ✓ Laguntzari esker, proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen handituko da.
 - ✓ Laguntari esker, onuradunak proiektuan edo jardueran inbertituko duen zenbateko osoa nabarmen handituko da.
 - ✓ Proiektuaren edo jardueraren exekuzio erritmoa nabarmen handituko da.

Diru laguntza jaso ahal izateko, eskatzaileek konpromiso hau hartu behar dute: proiektuak oso garatuak egon behar dira erabat justifikatzen diren unean, egiaztagarriak izango dira eta epe motzera merkaturatzeko modukoak.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK:

Langileria gastuak:

- Barruko langileak badira, enpresarentzako kostu erreala balioztatuko da. Barruko langileen kostu hautagarria 30€/orduko izango da gehienez.
- Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 60€/orduko gehienez.
- Bidaia eta mantenu gastuak ez dira diruz lagunduko.
- Onuradunari lotutako pertsonen edo entitateen dagozkien gastuak ez dira diruz lagunduko, salbu eta enpresari lotutako enpresako I+G unitatea bada.

Azpikontrazioak: Ez da gastu hautagarria izango fakturako BEZ-a.

Diruz lagundu daitezke, besteak beste, hauekin lotutako produktu edo zerbitzuak:

- Negozio kudeaketa eta kontrola, eta negozio eredu berriak (serbituzioa, bezero eta hornitzaileekiko harremana,...).
- Ekoizpen prozesuaren kudeaketa eta kontrola.
- Bitarteko produktiboen garapena, Industria 4.0 produktuetarako.
- Industria 4.0 produktuak.
- Konektagarritasuna eta mugikortasuna.
- Zibersegurtasuna.
- Big Data.
- Konputazioa eta lainoa.
- Errealitate handitua eta errealitate birtuala.
- Robotika aurreratua.
- Low-end eta embedded sistema eta sentore adimendunak.
- Ikusmen artifiziala, 3D ikuskapena eta neurtze aurreratua.
- Fabrikazio gehigarria eta 3D inpresioa.
- Prozesuen eta produktuen trazabilitate teknologiak

DIRULAGUNTZEN PROTZENTAJEAK ETA GEHINEKO ZENBATEKOAK:

Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera zehaztuko da, betiere aurrekontu baliabideak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta. Laguntzak enpresa ertain edo txikientzat direnean, laguntzaren gehieneko intentsitatea handitu ahalko da, ehuneko 10 puntu enpresa ertainen kasuan, eta ehuneko 20 puntu enpresa txikien kasuan. **Proiektu eta deialdi bakoitzeko gehieneko diru laguntza 60.000 euro izango da.**

ESKERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

Enpresa bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake deialdi bakoitzeko. Eskerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu eta hurrengo egunetik hasi eta **2018ko apirilaren 13an amaituko da**.

Eskaera orria, deialdian itsatsi tako ereduari jarraituz, eta hari erantsi tako dokumentazioa, ahal dela, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzen atarian: www.gipuzkoa.eus/subvenciones

Informazio gehiago: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>